Por lo tanto, podemos concluir que trabajar la memoria histórica en el aula contribuye positivamente a la asimilación tanto del aprendizaje de contenidos como metodologías; e incluso, mejora la relación profesor-alumno.

2. MEMORIA HISTORIKOAREN ALDARRIKAPENA

2.1. Zertarako ezagutu ahaztutakoa

“El conocimiento del pasado es el mejor cimiento para construir una cultura de paz y que ésta es históricamente un bien tanpreciado como frágil; en que la historia puede ser un instrumento de reconciliación consciente e informada de los herederos del pasado incomodo”.

(Fernández Prieto, L. 2012, 22)

Lourenzo Fernández Prietok eskaintzen digun esaldi hau ikertzen badugu, gaur egun memoria historikoa berreskuratzeko aipatu nituzkeen arrazoi nagusiak aurki ditzakegu. Zertarako gogoratu edo ezagutu behar dugu askok ahaztua dagoena edo iraganean pasatutako zerbait?

Alde batetik, autoreak iragan deseroso baten kontzeptua aurkezten digu. Baina iragan deseroso horrekin nori egiten dio erreferentzia?

Gabriele Ranzatok (2012) aipatzen zigun, Espainiaz gain lurralde gehienek daukatela iragan deseroso bat, edo beste hitz batean esanda, iragan tragiko bat.

“...no solo España sino que casi todos los países tienen un pasado incomodo o más bien trágico. También Estados Unidos, el país de la democracia, tiene en su pasado una guerra civil tan sangrienta que les ha costados mas victimas que las que han sacrificado en ambas guerras mundiales. También Italia, el país donde vengo, tiene en su pasado un largo régimen fascista, además con la vergüenza de de haberlo inventado, y la culpa de haber participado en una guerra catastrófica como cómplice y vasallo de una de las dictaduras más despiadadas de la historia”.

(Ranzato, G. 2012, 45)

Honek, Espainiako guda Zibilari egiten dio erreferentzia eta urte luzez indarrean egon zen frankismoari, hain zuzen. Historialari askoren iritziz, garai hartako zauriak zabalik daudenarekin ados baitaude. Eta zabalik daude, erregimen

frankistak izan zuen zigorgabetasunarengatik gehienbat, zeinek guda irabazteaz gainera eta irabaziek haien erruak ordaindu zituzten bitartean, ondoren ere gizartea erailtzen, kartzelaratzen, zapaltzen eta makurrarazten jarraitu zuten. Haur da, mendeku politika bat ezarri zuten urte luzeetan zehar, eta oraindik ere horren ondorioak jasaten ditugu.

“Algunos países, como Alemania o España, tuvieron y siguen teniendo el problema de cómo asumir socialmente su pasado inmediato, debido a que ese pasado fue traumático en ambos casos, y todavía deja huellas muy dolorosas en el presente”.

(Confino, 2006, 67)

Gaurkoan, historiografiak iragan isildu baten aspektu ezberdinak aurkezten dizkigu, garai haietan biktimen konponketa errealik ez baitzen eman eta gaur egun oraindik ere, ez delako biktimen aitortzen eman.

“Conscientes, por nuestra experiencia investigadora -4000 registros en red de personas represaliadas (4600 asesinatos), 500 entrevistas, revisión de 2500 procesos militares y 300 registros civiles, recuperación de fondos privados y 6000 imágenes-, de que, frente al conocimiento liberador que proponemos y practicamos como historiadores, la ignorancia forzada y obligada solo genera revanchismo y en vez de cerrar conflictos los recrea y reproduce en el tiempo”.

(Fernández Prieto, L. 2012, 21)

Beste alde batetik, adiskidetze batez hitz egiten digu. Eta gauzka jakina da, gatazka bat dagoenean, alde ezberdinak ditugula eta soilik denek egia ezagututa eman daitekeela adiskidetze hori. Frankismoak utzi zizkigun milaka eta milaka desagertuek, ehunka fosak eta beraz, bidetik utzi zituzten hildako guztiak ezagutzea eta aitortzea ezinbestekoa izango da adiskidetze bat emateko. Aldiz, G. Ranzatok (2012) argi uzten digu, adiskidetze batean soilik benetako etsaiek parte har dezaketela, eta gaur egun kontuan hartuz etsaiak desagertu direla, eta zaurien desoreka handia dagoela, egi historikoa izan daitekeela biderik egokiena egoera hau gainditzeko.

Memoria eta historiaren arteko harremana eta erabilpena Lehen Hezkuntzako ikasgelan: analisi teorikoa eta proposamen didaktikoa.

Bi ideia hauen harira, autoreak ikertzen ari garen esaldian, iraganaren ezagutza aipatzen digu eta honek ikerketa historikoaren ideia aipatzea beharrezkoa egiten digu. Egiaren bidean, alde batek zein besteak erabili zuten indarkerietan edo biktimen definizioetan mugatzea ez da egokiena, gertakarien ezagutza zehatzago eta egokiagoa eraikitzea baizik. Honetarako, garrantzitsua da iturri historiko berriak aurkitzea eta ahaztuak izan diren guzti horiei ahotsa ematea eta esateko dutena entzutea. Agian, adiskidetze bat ezinezkoa delako, baina iraganaren benetako ezagutza izan behar da gure helburuetako bat, mende erdi iraun zuen indarrezko gatazka bateko egoera ulertu ahal izateko.

“La historia o, si se quiere, una conciencia más precisa del pasado es, en mi opinión una buena base para curar esas heridas”.

(Ranzato,G. 2012, 49)

“La guerra civil de memorias no es una buena forma de enfrentamiento crítico con el pasado, pero no existiría de haberse dado una verdadera reconciliación. La reconciliación, por tanto, al menos en cierta medida, sigue pendiente. ¿Cómo lograrla? De las experiencias de otras sociedades sabemos muchas cosas importantes. En especial, que la reconciliación solo es posible cuando el derecho de conocer el pasado (no éste u otro pasado, sino el pasado en su conjunto, el pasado de unos y de otros y, asimismo, el de quienes, a su pesar, se vieron arrastrados por la corriente del conflicto) se convierte en un derecho de todos y puede ser ejercido sin menoscabo. Para muchos historiadores, haber sacado a la luz, mediante una investigación hecha con solidas bases documentales y rigor metodológico, el pasado incomodo tiene un valor cívico indudable. El proceso comienza por dar nombre y voz a las víctimas de la represión franquista durante la guerra civil y la dictadura, y ello sigue siendo necesario”.

(Ruiz Torres, P. 2012, 55)

Aipatzekoa da, ikerketa historikoa ahalbidetuko duen ikuspegi zabal eta konplexua, zaila izan daitekeela espazio publikora zabaltzeko, eta zailagoa oraindik honen kontra dauden indarrek oztopoak jartzen dituzten bitartean.

“Los actuales historiadores no han tenido, en cambio, el mismo éxito al abordar el segundo tipo de desmemoria inducida por el franquismo. Los individuos con antecedentes franquistas directos o familiares se resisten a que el tema de la violencia ejercida se ventile por temor a las responsabilidades pendientes, al menos las morales. Para mayor inri, parte de ellos ocupan puestos institucionales capaces de impedir o de entorpecer la difusión de contenidos. El peso de su mano es visible en la oposición a que se identifiquen y honoren los restos de los hombres y mujeres que yacen en fosas comunes, en las limitaciones a la inscripción de los desaparecidos en los registros civiles, en los obstáculos a la consulta de los expedientes de los juicios militares o a que se abran los archivos de las prisiones, amén de la sospechosa desaparición de documentos”.

(Sánchez-Albornoz y Aboín, N. 2012, 34)

Azkenik, bakean oinarrutako kultura baten eraketaz hitz egiten digu, eta puntu honetan, historiaren didaktikaren zeregina azpimarratu nahiko nuke.

Eskolaren zereginari dagokionez, baloreetan oinarrutako eta izaera kritikoa duten pertsonak heztea da. Gizarte baten parte garen gizabanakoak garela jakinda, munduaren hoberako diren jarrerak eta izaerak bultzatu nahi ditugu, munduan era autonomoan jardungo duten pertsonak hezten.

“4. artikulua. Lehen Hezkuntzaren xedeak

Hurrengan honako gaitasun hauek garatzen lagundu behar du Lehen Hezkuntzak:

- a) Elkarbizitzaren balioak eta arauak ezagutu eta preziatzea, haien arabera jokatzeko ikasi, herritar gisa jarduteko prestatu eta giza eskubideak eta gizarte demokratiko batek berezko duen aniztasuna errespetatzea.
- c) Gatazkei aurrea hartu eta modu baketsuan konpontzeko trebetasunak bereganatzea, horrela familian eta etxe barnean eta berekin harremanak dituzten gizarte taldeekin autonomiaz moldatzeko.
- d) Kultura desberdinak eta pertsonen arteko desberdintasunak ezagutu, ulertu eta errespetatzea, eta halaber emakume eta gizonen arteko

Memoria eta historiaren arteko harremana eta erabilpena Lehen Hezkuntzako ikasgelan: analisi teorikoa eta proposamen didaktikoa.

eskubide eta aukeren berdintasuna eta ezgaitasunen bat duten pertsonak ez diskriminatzea.

i) Historia unibertsaleko eta Espainiako historiako gertaerarik garrantzitsuenak ezagutzea.

j) Nafarroaren geografiaren eta historiaren hastapenak ezagutu eta Nafarroa berezi egiten duten hizkuntzen, kulturen eta ohituren aniztasunaren berri izan”.

(Lehen Hezkuntza Curriculuma, 2006, 41)

Idea honetatik abiatuz, historiaren didaktikak, eta honen barne biltzen dugun memoria historikoak zeregin erabakigarria izango du, honen berreskurapenak lagunduko baitigu, iraganean gertatu ziren ankerkeriak berriro gerta ez daitezen. Ikasleek, frankismoa sufritu zutenen aldetik entzun ahal izango dute haien historia eta entzundakoak hausnarrarazi egingo die.

Gainera, memoria historikoa ikasteko historikoki pentsatzearen metodologiak, haiek autonomoki ezagutza hori eraikitzea ahalbidetuko du, haien izaera autonomoa bultzatuz, eta bizitza errealean nola jokatu ikasiz. Gainera, beraiek historiaren gertakari horiek aurkitzeak eta iturriekin lan egiteak benetako ezagutza bat, esanguratsua izango dena haien bizitzan erabili ahal izateko, eraikitzea ekarriko du.

2.2. Ahaztearen arazoa Espainian eta Memoria Historikoaren berreskurapenaren aldarriak

Historiaren prozesu traumatikoen analisisian eta beren ebazpenean, geroz eta garrantzia handiagoa hartzen ari da biktimen papera. Gertakari hauek bizi izan zituzten asko hil egin dira, bai gudan zein errepresioaren ondorioz,. Hala ere, denboraren poderioz hauen hitzaren aldarria hauen senideez zein ideologiarekin bat egiten duten pertsonen osaturiko zenbait kolektibok bere egin dute.

Geroz eta handiagoa da iragan ezkutu hori berreskuratzearen alde egiten duen gizartea, berreskurapen hau deserosoa izan daitekeen arren, memoriaren

berreskurapen honek hasiera gertaera traumatiko hauek hasi ziren momentuan baitu hasiera.

Mugimendu honen hastapenak, trantsizio garaian emandako isiltasun itunari aurre egiteko eman dira batez ere. Izan ere, garai hartako alderdi politikoek frankismo garaiko biktimak eta errepresioa ahazteko konpromisoa hartu baitzuten. Demokraziak ez zuen iraganarekin apurtu eta frankismoaren aztarnak estatuaren egiturari txertatuak geratu ziren, armadatik hasita, justizia tribunalekin jarraituz eta Estatuaren instituzio altuenetaraino.

1977. urtean eman zen amnistia amnesia batekin edo ahaztearekin nahastu edo ordezkatu zen eta beraz, trantsizioan emandako isiltasunaren itun honek, ondoren emango den historia ofiziala zehazteko erabakigarria izan zen, beti irabazleengatik idatzia. Amnistia honen bidez, frankismoaren kontra egin zutenak kartzeletatik atera zituzten arren, aldi berean erregimeneko gobernari, politikari, militar eta funtzionarioak beren erruetatik libratu zituzten.

Baina 2000. urtetik aurrera, diktadurako politikaren antolakuntza azaltzeko daturik ez zegoenean, erantzukizunen aldarririk ez zegoenean, desagertuen eta hildakoen gertaerei aurre egin gabe zegoenean, trantsizioaren egoera guztiz aldatu zen. 1990ean genozidio eta gizartearen aurkako beste krimenen aurrean egia ezagutzarako aldarria zabalduz joan zen eta Espainia ezin zen alde batean geratu. Mugimendu honekin, memoria, egia eta justiziaren aldarrikapenak entzuten hasi ziren eta Espainia osoan zehar memoria historiakoa berreskuratzearen aldeko elkarteak sortzen hasi ziren.

2006a izango zen Diputatuen Kongresuaren aldetik izendatua izan zen Memoria Historikoaren urtea, eta iraganaren ezagutza Jose Luis Rodriguez Zapatero-ren Gobernuaren helburu nagusienetako bat bezala zehaztu zen, honen hautagaitzaren amaieran eman zen *Memoria Historikoaren Legea* onartuz.

Hala ere, lege hau oso kritikatu izan da historialari eta gizartearen parte askoren iritziz.

Memoria eta historiaren arteko harremana eta erabilpena Lehen Hezkuntzako ikasgelan: analisi teorikoa eta proposamen didaktikoa.

Jose Carlos Bermejo Barreraren (2006) iritziz, memoria historikoaren legea delakoak, ezta ere ez zien, zuloetan, zangetan ezkutatuak izan ziren desagertuei haien duintasuna bueltatu nahi izan. Etsaiari, ez zizaion soilik duintasun politiko, moral, intelektual eta militarra ukatu, baizik eta hilerri militar tradizional baten aldetik guztiz iraingarria den monumentu bat eraiki behar izan zuten ere: El valle de los caidos deiturikoa hain zuzen. Monumentu hau, gudako presoek eraiki behar izan zuten, eta Eliza katolikoaren esku geratu zen gerora, garaituen memoriaz jabetzeko saiakera bat izanez. Legearen arabera, monumentu honek zutik jarraitu behar du oraindik.

Honez gain, lege honek eskatzen duenaren arabera, hildakoak dauden fosa horiek arkeologoen eskutik irekiak izan behar dira eta ondoren, ondare historiko bihurtuko dira. Eta honek, biktima hauekiko eta haien senideekiko irain bat izateaz gainera, berriro ere biktima hauen duintasuna deuseztatzen du. Jakin badakigu, honek ez dituela ondorio penalak ekarriko, baina gorpuak indarkeri kriminal baten biktimak direla onartzeak justiziarako ezinbesteko tresna delako.

Badirudi, askoren aldetik garaituei hilobi duin bat ukatzeaz gain, badaudela zeinak haien memoria ere ukatu nahi duten. Historian betidanik egon dira borreroak eta biktimak, eta borreroek haien biolentzia, zapalkuntza, abarizia, mespretxua ezarri izan dute, eta honetaz gain, duintasuna, ohorea eta aintza, bere egin nahi izan dute haiek soilik izan zitezten historiako heroiak.

Biktimatek aldiz, nahigabeko mina, beldurra eta sufrimendu fisikoak eskaini behar izan zituzten, eta hauek nola pixkanaka ahaztean ziren ikusi, haien oroitzapenen mina baretzeko irtenbide bezala zenbaitetan, eta besteetan noizbait argira aterako ziren esperantzarekin, haien duintasuna eta ideiak zein borrokak aitortuko direlakoan.

Honek guztiak sailtzen du memoriaren lege orokor bat egitea, alegia, estatu mailan eragina edukiko duena.

3. HISTORIAREN DIDAKTIKA

3.1. Historiaren didaktikaren garapena, gaur egungo historikoki pentsatzearen erronkara iritsi arte

Lehenik eta behin, historiaren didaktikaren korrante apropos bat definitu ahal izateko, historiaren definizio bat zehaztea ezinbestekoa da, definizio honek barnebiltzen dituen afera guztiak bilduko dituen historiaren didaktika apropos bat zehaztu ahal izateko.

Beraz, historia definitu nahi badugu, P. Vilarrek eta J. Fontanak eginiko ekarpenetara jo dezakegu, adibidez. Hauek, urte luzeen ondoren emandako definizioen aldaketak eta zehaztasunak emanda, “historia osoa” edo gizartearen, kulturaren, ekonomiaren eta politikaren arteko erlazio orokorra defendatzen dute:

“Historia iraganeko gizartearen garapenaren ikerketa zientifikoa da, dinamismo eta aldaketan zentratzen dena eta gizakia jendartean protagonistatzat duena aldaketa sozialen prozesu konstantean. Aldaketa hauetan kausa-efektu erlazioak espezifikoa dira eta ezagutza zientifikoa honen eraikitzaileak ere. Hala, historia iraganaldiko gizartearen eboluzioaren deskribapen eta interpretazioa da, hura azaltzea ahalbidetzen duten arlo guztietan”.

(Tribó, G. 2005, 43)

Definizio honetatik abiatuz, eta aurrerago ere honetara bueltatuko garela jakinik, historian zehar historiografiak eta historiaren didaktikak izan duten garapena azalduko dugu, gaur egun historia irakasteko metodologia aproposena zein deritzogun zehaztu ahal izateko emaniko prozesuak eta arrazoiak azalduz. Historiaren irakaskuntzaren garapen hau, batik bat historiografiak eta pedagogiak zein psikologiak izan duten eboluzioari zor zaio.

Memoria eta historiaren arteko harremana eta erabilpena Lehen Hezkuntzako ikasgelan: analisi teorikoa eta proposamen didaktikoa.

3.2. Historiografiaren eboluzioaren eragina Historiaren Didaktikan

Historiografiaren eboluzioa urte luzez eman da eta aldaketa nabariak izan ditu, historialari askoren eskutik etorri zaizkigun korrante ezberdinak eta ikusmolde anitzak kontuan hartuz:

Historiari buruzko pentsamendu eta adierazpenak lehenengo giza komunitateetatik datozkigun arren, XVIII. mendeko ilustrazioa historia zientzia sozial bezala lehenengo pausuak ematera bultzatu zuena izan zela esan daiteke, eta honekin batera kausalitateaz kezkatu eta gizartearen garapenaren inguruko lege edo kausa orokorren bila ere aritu zen. E.H. Carr-i jarraikiz, esan daiteke ilustratzaileak izan zirela historiografia modernoaren fundatzaileak, ikuspegi teologiko judu-kristaua mantendu baitzuten, baina prozesu historikoaren izaera arrazionala berrezarri.

Hala ere, XIX. mendeko historiografia, ilustratuen kontra etorri zen beste alde batera joko zuen korrante berri bat sortuz zeinak historia disziplina zientifiko bihurtzen duen. Garai hartako historiografia, nazionalista burgesen aldera joko zuen, hauek boterea eskuratzen zuten heinean, eta orduan jaio zen historia akademiko nagusi bilakatu zen. Korrante honen sortzailea izan zen L. von Ranke eta honi esker aurrerakuntzak egin ziren bai metodologian eta kritika historikoan, baina proposatzen zuen gertaera historikoen absolutismoa eta historialariaren eginkizun pasiboa askoren aldetik kritikatuak izan ziren.

Kritika hauek jaso arren, XIX. mendean eta XX. mendearen zati batean ere indarrean egon egongo da akademian zein hezkuntzan.

Bigarren mundu gerra ostean, aldiz, Annalesen eskolaren eraginak, marxismoaren errebisio kritikoak eta historia ekonomikoaren eta sozialaren garrantziak posible egin zuten paradigma aldaketa ematea lehenengo produkzio historiografikoan eta geroago eskoletan eta ikasgeletan irakasten zen historia, politiko-militar eta nazionala izatetik, historia sozial, ekonomiko eta unibertsala izatea pasatu zen. Horrela, hezkuntza alorrean historiak paradigma aldaketarako bultzada jaso zuen, mendebaldeko European eskola gidak errebisatuz eta historia ekonomiko eta sozialaren edukiak barneratuz. Bitartean, Espainian, diktadura frankistak prozesu hau guztiz moteldu zuen, gerraosteko

nazional-katolizismoak testu liburuak historizismo nazionalista espainolaren topikoen ikuspegi estereotipatua eskainiz. Horregatik, aldaketa hauek ez ziren iritsi Espainiara, hirurogeiko hamarkadan Hezkuntza Lege Orokorrak ekarri zuen prozesua iritsi arte.

Beraz, XIX. mende erdialdean nagusi zen historiaren ikuspuntu tradizionaletik orain indarrean dagoen paradigma eko-humanistara, aldaketa asko eman dira, kontuan hartuz oraingo historia osoaren ikuspuntua; gizakia protagonista den eremu sozial eta naturalean ematen diren arazo eta prozesuen planetamendu integratua.

Eta, momentu honetan iristen gara lehen erabili dugun historiaren definizioa zehaztea. Hona hemen, Pierre Vilarren Historia osoa edo totalaren ikuspuntua. Honen arabera, zientzia historikoaren objektua gizakien gizartearen dinamika da. Materia historikoa aldiz, gertakari motek osatzen dute, objektu hori menperatzea heltzeko ikertzea ezinbesteko direnak. Vilarrek, gertaeren sailkapen hau egiten zuen:

“1) Los *hechos de masas*: masa de los hombres (demografía), masa de los *bienes* (economía), masa de los *pensamientos y de las creencias* (fenómeno de las ‘mentalidades’, lentos y pesados; fenómenos de ‘opinión’, más fugaces).

2) Los *hechos institucionales*, más superficiales, pero más rígidos, que tienden a *fijar* las relaciones humanas dentro de los marcos existentes: derecho civil, constituciones políticas, tratados internacionales, etc.; hechos importantes pero no eternos, sometidos al desgaste y al ataque de las contradicciones sociales internas.

3) Los *acontecimientos*: aparición y desaparición de personajes, de grupos (económicos, políticos), que toman medidas, decisiones, desencadenan acciones, movimientos de opinión, que ocasionan ‘hechos’ precisos: modificaciones de los gobiernos, la diplomacia, cambios pacíficos o violentos, profundos o superficiales”.

(Vilar, P. 1982, 43-44)

Honetaz gain, historia instituzioen erretaula soil bat izan ezin zitekeela, ez eta gertakarien kontakizun bat ere, baina hauek gizartearen egunerokotasunean eragin handia zutela azpimarratzen zuen. Materia historiko konplexu honen aurrean, historialariak arazoak konpontze ditu zenbait kuestio planteatuz: Noiz, zergatik, nola, zein neurritan... aldatu egiten direla etengabeko interakzioagatik, ekonomien elementuak (gizakiak, ondasunak), gizartearenak (erlazio sozialak) eta zibilizazioenak (jarrera mental, intelektuak eta estatikoak). Honen aurrean, gehitzen du:

“El historiador habrá de distinguir muy pronto entre los hechos de evolución muy lenta (estructuras geográficas, mentalidades religiosas, grupos lingüísticos), los ritmos espontáneos (“ciclos coyunturales de la economía), y los simples acontecimientos, cuya importancia deberá valorar.

Estas distinciones justifican diversas *técnicas*: Análisis ‘estructural’, análisis ‘coyuntural’, “análisis de contenido y de expresiones verbales o estéticas, elección de las fuentes, crítica de su validez. Pero estas técnicas sólo adquieren su sentido dentro del marco de una *teoría global* que permita pasar del análisis económico-estadístico a la ‘historia razonada’”.

(Vilar, P. 1982, 43-44)

Hala eta guztiz ere, esan beharrekoa da historiografiak izan ditzakeela aldaketak paradigma historikoetan, baina honek ez du zertan beti hezkuntzaren paradigma aldatuko.

3.3. Pedagogia eta Psikologiaren eboluzioaren eragina Historiaren Didaktikan

Pedagogiak eta psikologiak historiaren didaktikan egin dituzten ekarpenek historiografiaren eta historiaren irakaskuntza ereduaren arteko erlazioa zehaztea ahalbidetzen digute.

Pedagogiari dagokionean, XIX-XX. mende artean Eskola Berriaren aurretik egon ziren teoriak, paradigma magistrozentriko edo tradizionalaren barruan

koka ditzakegu, eta ilustrazioa arte ez ziren finkatu pedagogia esperimental eta aktiboaren oinarriak. Eskola Berriaren sustatzaileek behaketa zuzena, indukzioa, enpirismoa eta medioa deskubritzeko esperimentazio teknikak bultzatu zituzten. Claparece, Ferriere, Decroly, Montessory, Cousint eta Freinet dira historia irakasteko modelo berri hau bultzatu zutenak eta hemen biltzen ditugu haiek egindako zenbait ekarpen:

- Metodo aktiboak eta behaketa zuzena: inkestak, itinerarioak, medioarekin kontaktu zuzena...
- Denbora historikoaren kontzientzia, gai zehatz bati aplikatutako denbora-lerrotik abiatuz.
- Baloreetan oinarritutako hezkuntza
- Interes gune batetik abiatutako Zientzia Sozialen irakaspen globalizatua
- Seriazio, bilketa eta diskriminazioa jarduerak.
- ...

Psikologiari dagokionez, Piagetek eginiko espazio, denbora, kausalitate, zoria bezalako kontzeptuek eta garapen estadio batetik bestera pasatzeko azalpenen ekarpenek ahalbidetu zuten historia bezalako diziplinetan ezagutzak modu zuzenago batean sekuentziatu ahal izatea. Piageten arabera, ikaskuntza garapen kognitiboak ezartzen zuen eta programazioak haurren gaitasunei egokituak behar zuten egon.

Hala ere, hirurogeigarren hamarkadatik aurrera Bruner, Vygotski eta Ausubelen eskutik agertu zen Konstruktibismoak XX. mende hasieran eman zen konduktismoari eta Piageten psikologia ebolutiboari kritika handiak egingo zizkieten, Piageten ekarpen asko mantenduko zituzten arren. Besteak beste, garapen estadioen unibertsalizazioa, eta metodo eta edukiak hautatzeko garapen-ezaugarrien garrantzi soila kritikatu zituzten.

Konstruktibisten arabera, historiaren irakaskuntzan metodoen aniztasuna (aurkikuntza, ahozko zein idatzizko transmisioa, behaketa zuzena, ikerketa...) zen biderik egokiena ikasleriaren perfil psikologiko aniztetara egokitzeko. Gainera, ikaskuntza esanguratsua izan zedin ikasleen aurrezagutzetatik abiatu behar gara baina ikasteko helburua ikaslearen ahalmen garapenaren gainetik

Memoria eta historiaren arteko harremana eta erabilpena Lehen Hezkuntzako ikasgelan: analisi teorikoa eta proposamen didaktikoa.

jarriz. Azkenik, ikasleak ikasitakoari esangura eman diezaion, ikasleak gai izan behar du ikaskuntza berri hori bere estruktura kognitiboan txertatzeko, ikaskuntza-estruktura berri bat eraikiz.

3.4. Gaur egungo Historiaren Didaktikaren erronka: historikoki pentsatzen irakastea

Gaur egun arte, nagusi izan dugun irakaskuntza mota tradizionaletik aldendu nahi izan den arren, ikasleek jasotzen zituzten ezagutza gehienak irakaslearen azalpenen eskutik eman izan dira. Gainera, historia, kontakizun bakar eta itxi baten bidez ikasi izan dugu, azalpen magistralen bidez.

Aldiz, psikologo konstruktibisten eskutik jaso genuen ikaskuntza esanguratsua eraikitzearen kontzeptuak bat egiten du historia ikasteko orduan, historia eraikitzearen behararekin eta beraz, historialariaren lanarekiko hurbilpena ematearekin. Historia ikasi/irakatsi nahi badugu, garrantzitsua da oso historialarien lana zein den ezagutzea, eta historiaren ezagutza horretan, historia hori bera ere historialariak egin duen bezala eraikitzen jakitea, bide ezberdinak jorratuz, eta izaera autonomo, aktiboa eta kritikoa garatuz.

Historiaren definizioan esaten genuen bezala, mundu globalizatu eta dinamiko batean bizi gara, eta garai hauetan derrigorrezko hezkuntzaren helburu bat ikasleak aldaketetarako prestatzea izan beharko da. Ezin zaie ikasleei ezagutza historikoaren ikuspuntu itxi bat eskaini, aldiz, garrantzitsua izango da ikasleei ikerketen metodo historikoa aplikatzen irakastea, haien autonomia kognitiboa gara dezaten, eta informazioa haien ezagutzan transformatzen ikas dezaten.

Historiaren didaktikaren korrante honetan, ikasleek izango dute protagonismoa eta haiek izango dira haien ezagutza eraikiko dutenak, baina irakaslea ezinbesteko gidaria izango da, aurrerago azalduko dugun moduan, ikasleen ezagutza eraikitzerako garaian bideratzaile lana eginez eta beharrezko laguntza eta baliabideak eskainiz.

3.4.1. Metodoan murgildu

Lehen esan bezala, historiaren irakaskuntzan garrantzitsua da ikasleek ikaskuntza esanguratsua eraikitzea eta hau historiaren alorrean, aurkikuntzaren

bidezko ikaskuntzan oinarritu daiteke. Horregatik, bide egoki bat izan daiteke eskolan ere, historialariaren lanaren simulazioa egitea historia ikasi ahal izateko metodo ezberdinen bidez:

- Hipotesiak formulatu
- Iturri historikoak klasifikatu
- Iturriak ikertu
- Iturrien sinesgarritasuna ikertu, kausalitatearen kontzeptua barneratuz, eta historiaren azalpenean murgilduz.

Pierre Vilarren eskutik iritsi zitzaigun: “historikoki pentsatzen irakastea”-ren kontzeptua.

Pierre Vilarrek bere obran eguneroko errealitateari aurre egiteko método bat aurkeztu nahi izan digu. Berarentzako berria ez den método bat, bere bizitzaren gertaeren inguruan pentsatzea lagundu diona hain zuzen. Berak dionaren arabera, historialariaren ofizioaren lanean ezinbestekoa da eta Vilarrek norbanakoek ere método hau erabil dezaten aldarrikatzen du, gure aurrean gertatzen diren gertaeren aurrean hausnarketa historikoa egin dezagun nahi du; gertaera hauek ahalik eta gehien denboran zehaztuz. Zer, noiz, nola, nork, zergatik, zer-en alde... galderak ez soilik historialariaren egunerokoan baizik eta norbanako guztien egunerokoan txertatuz, bakoitzaren errealitatea ulertu ahal izateko, modu kritiko batean. Honen bidean, topikoak, dramak eta tragediak alde batera uztez hitz egiten digu.

Vilarren eskutik etorriko zaizkigu ere honako ikaskuntza batzuk:

1. Historia faktual eta politiko bat gainditzearen beharra adierazten du, mekanismo social eta ekonomikoen historia bati arreta handiagoa eskainiz.
2. Gainera, Vilarrek garai historiko bateko protagonistek ulertu ezin izan zutena orain historialarien eskutik ulertzearen beharra ikusten du.
3. Honez gain, historia totalaren defendatzailea izanik, analisi eta ulermen aldetik hizkuntza faktoreen eta prozesu intelektualen garrantzia adierazten du, ikerketa objektuaren eraikuntza eta analisisian.

Memoria eta historiaren arteko harremana eta erabilpena Lehen Hezkuntzako ikasgelan: analisi teorikoa eta proposamen didaktikoa.

4. Azkenik, historialari positibisten gomendioak kritikatu, Vilarrek historialariak haren interesekoak diren gaiak hautatzeko beharra adierazten du, bakoitzaren ikerketa objektuak hautatzerakoan.

Historia, historiografiaren produktu bat izanez, ez da emandako errealitate bat, iraganeko datu eta informazioei esker eraikitako errealitate bat baizik. Beraz, ezagutza historikoa informazio zehatz baten transmisioaren bidez irakastea saihestu behar dugu, haratago joanez, eta ikasgela Historia egiteko eremu bat bihurtuz.

Modu honetan, ikasleek ezagutza historikoen eraketari buruz hausnartu ahal izango dute, iturriak aztertzeke teknikak ezagutzuz, iraganeko eraikuntza egin ahal izateko erabiltzen diren prozesuak ulertuz eta erabiliz eta iragana ezagutzeko moduak aldatuz. Gainera, iragana gureganaino nola iritsi den ulertu ahal izango dute, bai eta honek ekartzen dituen adierazpen eta interpretazio anitzak.

3.4.2. *Iturri historikoak*

Ikasle eta irakasleak historialarien paperean murgildu nahi baditugu, ezinbestekoa izango da iturriko historikoen mundu zabala ezagutzea.

Iturri historikoek ez daude berezko estatutu batez zehaztuak, iraganari dagokion edozer gauza bihurtu daiteke iturri. Baina iturri bilakatzearen arrazoia ez da dokumentua edo objektua bera, historialariak planteatutako arazo edo hipotesiari erantzuteko duen erabilpena baizik.

Gemma Tribó-k (2005) azaltzen duen moduan, egunerokoan erabilitako pieza bat, argazki bat, elkarrizketa baten grabaketa... bihurtuko dira ezagutza historikoa eraikitzeke iturri aproposak, galdera egokiak egiten dizkiegunean eta haiek eskaintzen diguten informazioa ondo interpretatzen dakigunean soilik. Eta interpretazio prozesu honen bidez, iturrien lehen sailkapen bat egin dezakegu, lehen mailako eta bigaren mailako iturrien artean: lehen mailakoei dagokienez, gizarreak sortu dituen produkzioak izango lirateke, eta hauen artean, material mota anitza aurki dezakegu; iturri dokumentalek (dokumentu politiko, juridiko,

politiko, instituzional, hemeroteka, argazki, mapa...) eskaintzen diguten material zabaletik hasita, iturri materialek (gizartearen ondare material eta arkitektonikoa) eta ahozko iturriek (elkarrizketak, testigantzak, kankak, ipuinak...) eskaintzen diguten produkzioetaraino.

Bigarren mailakoei dagokienez, komunitate zientifikoak lehen mailako iturri hauek aztertzean eta interpretatzean sortu dituen produkzioak dira, ikertutako gertaeren ondoren sortutakoak hain zuzen.

3.4.2.1. Lehen Mailako iturriak Historiaren irakaskuntzan

Lehen mailako iturrien erabilerak lehen hezkuntzaren irakaskuntza eta ikaskuntzan, abantailak handiak eskaintzen dizkigu historiaren ikerketen inguruan programazioak egiterako garaian.

1. Ezagutzaren eraikuntzan autonomia bultzatzen duten, sozializazio, pentsamendu alternatibo eta pentsamendu zientifikoari dagozkion gaitasun intelektualak estimulatzen ditu.
2. Inguruaren eta historiaren ikerketek eskola eta komunitatearen arteko hurbilpen bat ematea ahalbidetzen dute. Honek ikasleei hein handi batean lagunduko die etorkizunean gizarteko norbanako bezala parte-hartze arduratsu bat izaten.
3. Ikerketa hauek, gizartearen inguruko ezagutza zabaltzea ahalbidetzen dutenez gero, denbora-leku kontzientzia bat hartzen laguntzen dute, ikasleari bere denbora propioan zein espazio pertsonalean haren izaera eraikitzen lagunduz.
4. Gainera, ikaslearen eta ikerketa-objektua denaren arteko inplikazio afektibo bat eskaintzen dute eta hau motibagarria izan daiteke.
5. Ikerketen orientazio kritikoak ikasleak gizarte anitz batean bizitzeko prestatzen ditu eta iraganean historiak izan duen eragin adoktrinatzailetik aldentzen ditu.
6. Metodo historikoaren aplikazioak, historia konstruktiboa, zabala, irekia eta garapen konstantekoa dela erakusten die ikasleei.

Memoria eta historiaren arteko harremana eta erabilpena Lehen Hezkuntzako ikasgelan: analisi teorikoa eta proposamen didaktikoa.

7. Ingurua eta historia metodoa aplikatzeko eta ikerketa mota hauek egiteko laborategia bihurtzen direnez, eraikuntzaren metodoa hezkuntza-sistemak eskaini ditzakeen segurtasun gutxienetako bat bihurtzen zaigu.
8. Inguruarekiko ikerketek, komunitatearen inguruko ulermen prozesuan kritikotasuna ahalbidetzen dute, eta munduko gizabanako bezala sozializaziorako ere balio izan beharko lukete.

3.4.2.2. *Iturrien lanketa didaktikoa*

Lehen esan bezala, iraganetik datozkigun produktu zein dokumentuak ez dira berez iturri historikoak, guk ez baditugu arazo baten barne kokatzen. Horregatik, iturriekin eskolan egin behar dugun lehenengo lana, iturri hauek gaien kokatzea (iturriak hautatu, mugatu...) eta problematizatzea (hipotesien planteamendua) izango da. Hala ere, kontuan hartu beharko da honekin hasi baino lehen, ikasleek gaiaren inguruan ezagutza minimo batzuk barneraturik dituztela, lanarekin hasi aurretik.

Esan bezala, beraz, gaia kokatzearen lana izango da abiapuntua. Hala ere, informazio eta ezagutza faltarengatik, garrantzitsua izango da lan hau irakasleek egitea, proiektuaren errentagarritasuna bilatu asmoz. Emilio Majuelo eta Esther Guibert-ek esaten diguten moduan, ikasleek ezagutzak gogorki finkatuak ez dituztenez gero, ezinezkoa da hauek egoki aukeratzea lantzerantz doazen gaia.

Problematizazioa edo hipotesien formulazioaren ondoren egin beharreko lana, iturrien hautaketa eta indibidualizazioa izango da, eta puntu honetan, aurrekoan bezalaxe, irakasleek izango dute zeregin nagusia. Akats bat izango litzateke zentzurik gabe ikasleak ikertzen eta informazioa bilatzera bidaltzea, erabilitako iturriak zein informazioa gure helburua izango denerantz bideratua eta zehaztua egon behar duelako, proiektuaren iparra inongo momentutan galdu gabe.

Behin iturriak aukeratu ditugula, etorriko da ikasleek egin beharreko lana, eta honetan saiatu behar gara ikasleek iturriak elkarrizketatzearen gaitasuna lor dezaten. Lehenik eta behin, galderen aurrean informazioa sortzen ikasi behar

izango dute, eta ondoren, arazoak, galderak edo erronkak planteatuko dituen galdeketa bat egiteko gai izan beharko dute.

Horrela, ondoren, ikasleek informazioa eraikitzeke oinarri bat izango dute eta testu historikoak idazteko gai izango dira. Baina ez dugu ahaztu behar hau lan gordina izan daitekeela haienezako, eta beraz, irakasleak gidatu behar izango duela prozesu guztia, ikasleei informazioen arteko harremanak ulertzen lagunduz.

3.4.2.3. Ahozko iturriak

Lan honetan, ezinbestekoa egiten zaigu ahozko iturrien azalpen apropos bat egitea, hauek duten izaera espezifiko kontuan harturik.

Iturri historikoak iraganeko pertsonengatik sortuak izan diren aztarna zein testingantzak direla kontuan harturik, hauek historia eraikitzeke balio digute. Ahozko iturriei dagokienez, beste zenbait iturrietatik aldentzen dituzten ezaugarri bat daukate: Ahozko iturriak, ez dira aurkitutako iturriak, sortutako iturriak baizik. Hauek, artifiziaiki sortuak izan dira, kontzienteki ikerketa marko baten barruan edo Ahozko Artxibo bat sortzeko.

Ondorioz, ahozko iturriek ezaugarri espezifiko batzuk aurkezten dizkigu, beren eduki ez beti gardenagatik alde batetik, eta memoriaren subjektibitateak dakartzan arazoengatik, bestetik.

Baina zeintzuk dira ahozko iturrien ezaugarri espezifikoak?

1. Ahozkoak dira. Onarpen bistakoa dirudien arren, kontuan hartzekoa da eta presente izan behar dugu beti iturri hauen ahozkotasuna hauekin lan egiterakoan: iturria elkarrizketaren grabaketa da, ez bere transkribapena. Honek ez du esan nahi transkripzio bat egitea ezinezkoa denik honen lanketa errazteko asmoz, baina honek dakartzan arazoak kontuan hartu behar ditugula, hain zuzen, testu bat itzultzerako garaian gertatzen den bezala.

Memoria eta historiaren arteko harremana eta erabilpena Lehen Hezkuntzako ikasgelan: analisi teorikoa eta proposamen didaktikoa.

2. Narratiboak dira. Elkarrizketatuak kontakizun bat sortzen du, narrazio bat eraikitzen du elkarrizketatua den heinean.

Kontuan hartzekoa da ezaugarri hau, ahozko iturriak ikertzen ditugunean, testu narratibo-literarioak ikertzean erabiltzen ditugun espezifikotasun berak erabili behar ditugulako.

3. Gertaerez eskaintzen diguten informazioa baino, gertaera horren esanahiaz informazio gehiago eskaintzen digu. Ahozko iturriek baliozkotasun informatiboa badute, eta iraganeko gertaeren inguruan informazioa lortzea ahalbidetzen badute, aipatzekoa da hiztunaren subjektibitatean barneratzen gaituztela. Eta zentzu honetan, subjektibitate hau egiazki gertatu zenaren maila berean, datu historiko bat da.

Guzti honengatik esan dezakegu ahozko iturriak garai batean beste mota bateko iturrietan dokumentatua geratu ez zen informazio bat lortzeko erabil ditzakegula. Eta gainera, esanguratsuak dira dokumentatuak izan diren gertaerei beste ikuspuntu bat emateko, gertaeren protagonisten kontakizuna hain zuzen.

4. Beren sinesgarritasuna beste iturriekiko ezberdina da. Aipatzekoa da, ahozko iturriak idatzizko iturriak bezain sinesgarriak direla. Eta hau aipatzen dugu, zenbait arlotan ahozko iturrien sinesgarritasuna galduz joan zela, dokumentu idatzien monopolioa ekarriz.

5. Gainerako iturri guztiak bezala, ez dira objektiboak. Kontuan hartu behar dugu iturri historiko batek ere ez duela positibisten historiografiak aldarrikatu zuen objektibotasun absolutu hori, inplizituki daramatelako historialariak egiten dizkien galderak.

Baina lehen esan bezala, ahozko iturriak subjektiboak dira haien ezaugarri espezifikoengatik: artifizialtasuna eta aldakorak dira.

Artifizialtasun hori elkarrizketatzaile batek elkarrizketa hori egitearen nahi boluntarioan dauka jatorria, gero elkarrizketatuarekin konpartitua dena.

Aldakortasunak aldiz, proiektu hori egiteko moduan dauka jatorria: bien arteko testuinguruak, edukiak, galderak egiteko modua... eragiten dute jasotako informazioan. Bi ikertzailek informatzaile batetik informazio ezberdinak lortu ditzakete, haien helburuen arabera eta erabiltzen dituzten bideen arabera. Aipatzekoa da ikertzaile batek berak galdera berdinak egin arren, bi momentu ezberdinetan erantzun ezberdinak jaso ditzakeela, testigantzak ez direlako inoiz berdinak.

6. Osatugabeak dira. Hau horrela da, pertsona batekin dituzun elkarrizketak mugagabeki luza daitezkeelako, norbaiten memoria historikoa ez da inoiz amaitzen, edo agian hau ez dugu ziurki inoiz jakingo, baina ezin dugu elkarrizketa batekin mugagabeki jarraitu.

Izaera amaitugabe honek ahozko iturrien muga bat izatez uzten du, honakoa hau kontsideratzen badugu: ahozko iturriak erabiltzen dituen lan historikoa amaitugabea da iturrien izaerarengatik, baina ahozko iturriak erabiltzen ez duen lan historiko bat (erabil ditzakeenean), osatugabekoa da, esanahiez.

3.4.3. Kausalitatearen afera

Gertaera historikoen arrazoiak eta gertaera zein momentu historiko baten azalpena ematea da historialariak egiten duen azkeneko lana. Hezkuntza arloan, arrazoi eta ondorioak barne biltzen dituen azalpen historikoa, modu itxian ematen da, eta ikasleak ezinezkoa du jakitea nola iritsi den azalpena puntu horretara (Savage y otros, 2005).

Historialarian paperean, iraganari buruzko galdeketa da nagusi, beraz, ezinbestekoa izango da jakitea momentu zehatzetan zergatik gertatzen diren gertakari hauek.

Kausalitate historikoaren arazoa planteatzeak, kausa-efektu erlazioen ulermen zuzena dakar, eta noski, gertaera historikoek kausa bat baino gehiago izaten dute maiz.

4. PROPOSAMEN DIDAKTIKOA

4.1. Sarrera

Proposamen didaktiko honen bidez, lehen hezkuntzako hirugarren zikloko ikasleak gure historian oso garrantzitsua izan den Frankismo garaian murgildu nahi izan ditugu. Gauza jakina da Frankismoa garai garrantzitsua izan dela Euskal Herriaren historian, aztarna handia utzi baitu honek gure gizartean. Proiektu honekin, beraz, memoria historikoa landu nahi izan dugu, bai eta honek ekarriko duen metodologiarekin.

Proposamen didaktiko hau Altsasuko Iñigo Aritza Ikastolako Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloan praktikan jartzeko sortua izan da, eta, beraz, materialak ere espazio geografiko horretara egokituta daude.

Aipatu, proposamen honen bidez, ikasleak historia egiteko metodologia batean murgildu nahi ditugula, historikoki pentsatzen jarri nahi ditugu, haiei historiaren azalpen huts bat eman ordez, haiek izan daitezkeen historia hori eraikitzearen parte, historialariak burutzen dituen prozesu kognitiboak garatuz. Horrela, ezagutza historikoen inguruan hausnarketa sustatzeaz gain, ikasleak iturri historikoak ezagutzen eta erabiltzen bultzatuko ditugu, iraganaren eraikuntzan erabiltzen diren prozesuen parte eginez eta iragan hori gureganaino nola iritsi den ulertaraziz.

Hala ere, lehentxeago azaldu dugun bezala, ezin ditugu ikasleak nolana hiri informazioa bilatzen eta iparra zehaztu gabe ikerlari lana egiten jarri, beraz, irakaslea izan da gaia zehaztu, iturriak eta materiala lortu eta ikasleak prozesu osoaren bidez gidatuko dituen.

4.2. Metodologia

Proiektuan zehar erabiliko dugun metodologiak paper garrantzitsu bat izango duenez, gustatuko litzaidake bere oinarri nagusiak azaltzea.

Lehenik eta behin, aipatu ikasleak historialariaren lanera hurbildu nahi ditugula metodologia mota honekin, haiek historia eraikitzen eta historikoki pentsatzen jarriko baititugu. Honek dakarren guztiarekin, iturri historikoak ikertu, hauek tematizatu, ondorioak atera...

Hala ere, jakin badakigu Lehen Hezkuntzako ikasgelan metodologia mota honek arrakasta izan dezan oso garrantzitsua izango dela irakaslearen papera, beraiek izango baitira proiektuaren abiapuntua eta nondik norakoak zehaztuko dituen. Dena den, esan, proiektua prestatzerakoan irakasleak ere metodoan murgilduko ditugula, ez nahi diegulako material teoriko soil bat eskaini nahi ikasleei, baizik eta irakasleek ere historialari lana egingo dute pausu berdinak jarraituz. Iturri historikoak landuko dituzte (elkarrizketak eginez eta informazioa lortuz), gero hauetatik jasotako informazioa dokumentatuko dute, material apropos eta oso bat lortzeko asmoz. Gero, materialei hobe egokitzen zaien gaian zehaztu ahal izango du proiektua. Hala, irakasleak ere inork baino hobeto ezagutu behar izango ditu landuko diren edukiak hauek landu dituelako, eta baita historikoki pentsatzearen metodologia ere, berak ere metodologia honen bidez lan egin duelako.

Azkenik esan, paper garrantzitsu hori, gerora ikasleen interesa pizten, motibatzen, ikertzeko animatzen eta iparra galtzen dutenean hauek laguntzen zentratuko da. Ez du klase magistral gehiegirik emango, noizean behin azalpentxo bat behar izango dugula kontuan hartuz ere, eta ikasleak izango dira prozesu osoan zehar protagonistak, haiek haien ezagutza eraikiz eta benetako eta esanguratsua izango den ezagutza bat barneratuz, jarrera kritikoa, aktiboan eta autonomoan oinarrituko dena.

4.3. Irakaslearen ibilbidea

Mota honetako proiektu batean irakasle batek aurretik agin behar duen lana, handia da, proiektuaren eraginkortasun handiena lortzeko asmoz. Oso ekintza aberasgarria izan daiteke ikasleak era autonomoan lan egiten jartzea eta Memoria eta historiaren arteko harremana eta erabilpena Lehen Hezkuntzako ikasgelan: analisi teorikoa eta proposamen didaktikoa.

aktiboki lan egiteko jarduerak planteatzea, baina lana ez bazaie ondo aurkezten eta ez baditugu egoki bideratzen, proiektuaren erabateko porrota eman daiteke.

4.3.1. GAIAREN HAUTAKETA ETA ITURRIAK AUKERATU

Memoria historikoa landu nahi genuela jakinda, garrantzitsua da erabiliko dugun metodologia zehaztea eta honek ekarriko zituen lanak zehaztea.

Iturri historikoen gainean lan egin nahi genuen, baina ezinezkoa da ikasleak iturri hauen gainean lan egiten jartzea inolako bideratzerik gabe, beraz irakaslearen eginbeharra izan zen, garai honetan bizi zuten pertsonekin kontaktuan jarri, elkarrizketak egin, beste iturriak bilatu eta material guztia kontrastatzeko erabiliko genuen historiografia biltzea.

Gauzak horrela, hainbat elkarrizketa prestatu, egin eta horietatik jasotako informazioak tematizatu ondoren, aproposena iruditu zitzaigun, garai hartako eskolaren gaia lantzea.

Aipatu, garrantzitsua iruditzen zaigula, edozein gai hautatuta ere, Frankismoaren gainean lan egitea, gai garrantzitsua izan baita Euskal Herrian, oraindik ere pil-pilean dagoen gaia dela kontuan hartuta. Lehenago aipatu dugun moduan, gure historiaren zati garrantzitsu da eta ondo dago hurrek horren berri izatea, askotan etxean entzundakoa soilik baitakite.

Hurrek garai hartan izandako basakerien berri izan behar dute horrelakorik berriro ere gerta ez dadin. Hurrek jakin egin behar dute hau ez dela orain dela 500 urte gertatutako zerbait, ez dela urruneko zerbait, bertan gertatua dela eta jasan duen jendea oraindik bizi dela. Hori barruraino iritsiko zaiela uste dugu eta gerora gaiarekiko jakin-mina piztuko zaiela orain oinarri egoki bat hartzen badute.

Horrez gainera, inoiz ez da gaizki etortzen dugun zortea gogoratzea. Orain dela urte batzuetatik hona eskolak izan duen bilakaera ulertzen eta baloratzen

lagunduko die. Eta konturatuko dira orain dugun eskola euskalduna eta balioetan aberatsa lortzeko pertsona batzuk egin duten lanaz, etekin materialik ateratzeko asmorik gabe gainera.

Uste dugu, etxean ere gaiaren inguruan elkarrizketa politikak sortu ditzaketela haurrek eta euren arbasoen kontuak jakiteko aukera ere izango dutela, planteatzen diren elkarrizketak horretarako ere bidea ematen baitute. Gaur egun pil-pilean dagoen eta telebistan entzungo dituzten ume galduekin kasuekin ere jakin-mina piztu daiteke eta jakin-min hori asetzeko aukera izango dute etxean eta baita eskolan ere, planteatutako proiektuaren aitzakiarekin.

4.4. Helburu orokorrak, edukiak eta oinarrizko gaitasunak

Behin gaia eta erabiliko dugun materiala aukeratuta, garrantzitsua da proiektuaren helburuak zehaztea. Gure proposamenaren helburu orokorrak, edukiak eta oinarrizko gaitasunak hauek direlarik:

HELBURUAK

- Ikaslearen adinerako egokiak diren testu zientifiko, historiko eta geografikoak ahoz eta idatziz zuzen ulertu eta adieraztea. Arlo honetako berariazko hiztegia egoki eta zehatz erabiltzea.
- Taldeko jardueretan parte hartzea, portaera arduratsu, eraikitzaile eta solidarioa izanez eta funtzionamendu demokratikoaren oinarrizko printzipioak errespetatuz.
- Denboraren joanari lotutako aldaketa eta eraldaketak ikustea naturaren, gizartearen eta kulturaren ingurunean, eta aldiberekotasunaren eta segidaren erlazio batzuk arakatzea, ezagutza horien bidez beste garai historiko batzuk ulertu ahal izateko.
- Eskolako liburutegia eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzea informazioa lortzeko eta ikasteko nahiz ezagutzak partekatzeko tresna gisa.

Memoria eta historiaren arteko harremana eta erabilpena Lehen Hezkuntzako ikasgelan: analisi teorikoa eta proposamen didaktikoa.

EDUKIAK

4. multzoa. *Pertsonak, kulturak eta gizartearen antolaketa*

- Iturri desberdinetako infomazioa biltzea egoerak eta arazoak aztertzeko.

5. multzoa. *Aldaketak denboran zehar*

- Teknikak erabiltzea denboran eta espazioan iraganeko gertaerak kokatzeko, gertakizunen
- iraupena, aldiberekotasuna eta batzuen eta besteen arteko lotura ikusteko.
- Gizakien ekintzak, gertakizun historikoak eta aldaketa sozialak azaltzeko faktoreak.
- Garai historiko desberdinetako gizarte batzuen ezaugarriak ematea, bizimoduen azterketa eginez: historiaurreko garaia, klasikoa, erdi arokoa, aurkikuntzen garaia, garapen industrialarena eta XX. mendekoa.
- Espainiako historiako gertakizun eta pertsonaia nabarmenak.
- Ondare historiko eta kultureko agerpen garrantzitsuak ezagutu, baloratu eta errespetatzea.
- Iturri historikoak, geografikoak, artistikoak, etab. erabiltzea, eduki historikoa duten txostenak eta beste lan batzuk egiteko.
- Gizonek eta emakumeek historiako subjektu gisa izan duten zeregina baloratzea.

OINARRIZKO GAITASUNAK

- Gaitasun soziala eta herritartasuna
- Mundu fisikoa ezagutu eta harekin elkarreragiteko gaitasuna
- Informazioaren tratamendu eta gaitasun digitala
- Hizkuntzaren bidez komunikatzeko gaitasuna
- Ikasten ikasteko gaitasuna
- Norberaren autonomia eta ekimenerako gaitasuna

4.5. Jardueren segida

JARDUEREN ESKEMA HELBURU ESPEZIFIKOEKIN

1. ARIKETA: AURREZAGUTZAK	
Helburu didaktikoa: <i>Frankismoaren gaineko ideiak plazaratu, elkarren artean eztabaida sortuz eta emaniko ideiak liburu eta interneten bitartez egiaztatuz</i>	
Garapena: ikasleek aurre-ezagutza fitxa bat bete behar izango dute. Horretarako, lehendabizi lau laguneko taldeetan jarri eta bururatzen zaiena idatzi behar izango dute. Gerora, komunean jarriko dira ikasle guztietan ideiak eta azkenean, liburutegira joanda ikasleek galdetegia berriro erantzun ahal izango dute .	
Materiala: Liburutegia	Denboralizazioa: 2 ordu
2. ARIKETA:	
Helburu didaktikoa: Frankismoaren gaineko informazioa bildu, hitz klabeak ikusi eta ulertuz eta ulertutako informazioa azaltzeko gai izanez	
Garapena: Ikasleek frankismoaren inguruko testu bat irakurri behar izango dute, bertan agertzen diren zenbait kontzeptu argituz (bai hiztegiarekin, ordenagailuan edota irakaslearen laguntzaz). Ondoren, hainbat galdera erantzun behar izango dituzte.	
Materiala: Testua, hitzegia, ordenagailua	Denboralizazioa: 3 ordu
3. ARIKETA:	
Helburu didaktikoa: Frankismo garaian eskola nolakoa zen ezagutu, iturri ezberdinak konparatuz eta hauek azaltzeko gaitasuna landuz	
Garapena: Aiton amonei frankismo garaian eskolan izandako bizipenen inguruan galdeketa bat egin behar izango diete. Ondoren, emango zaizkien argazki batzuekin eta hainbat dokumentaziorekin konparatuz, gainontzeko ikaseei aurkeztuko diete egindako lana. Aipatu, lau laguneko taldeetan egingo dutela lana.	
Materiala: Dokumentazioa, argazkiak, galdetegia eta informazio gehiego	Denboralizazioa: 4 ordu

Memoria eta historiaren arteko harremana eta erabilpena Lehen Hezkuntzako ikasgelan: analisi teorikoa eta proposamen didaktikoa.

behar badute, bideo bat ikusteko.	
4. ARIKETA:	
<p>Helburu didaktikoa: Frankismo garaiko eskolaren gaineko informazioa barneratu, honen gainean pentsatuz eta eurak duten iritziaren arabera testu bat idatziz</p>	
<p>Garapena: Ikasleek frankismo garaiko eskolaren inguruko bideo bat ikusiko dute. Ondoren, bideoko ideiak, beraienak zein irakasleak emango dizkien ideiak kontuan hartuz, bi orriko iritzi artikulua bat idatzi behar izango dute.</p>	
<p>Materiala: Bideoa, iritzi artikulua egin ahal izateko irizpideak.</p>	<p>Denboralizazioa: 3 ordu</p>
5. ARIKETA	
<p>Helburu didaktiko: Frankismo garaiko egun baten irudia barneratu, honen inguruan informazioa lortuz eta proiektuan zehar ikasitako guztia erabiliz, antzezlan bat eginez.</p>	
<p>Garapena: Frankismoaren eta eskolaren gainean ikasitako guztia praktikan jarritz, hurrek Frankismo garaiko egun bat antzeztu beharko dute. Pentsa dezagun egun horretan Franko dela herrira etortzeko. Herritar bakoitzak ze paper izango lukeen jakin behar dugu eta horretarako beharrezko den informazioa bilduko dute hurrek.</p> <p>Antzezlan prestatzeko, taldeka banatu eta talde bakoitzak herriko talde ezberdin baten papera landu beharko du: Eliza eta elizgizonak, eskola eta ikasleak, oposizioko jendea, herritar xumeak... Bakoitzaren janzkerari buruzko informazioa lortu eta ahalik eta jantzi antzekoena prestatu beharko dira.</p> <p>Antzerki bitartez, Franko herrira datorren eguna irudikatu beharko dugu beraz, herritar eta talde ezberdinak izango luketen kokalekua eta jarrera ikusi behar dugularik bertan.</p>	
<p>Materiala: Lagungarri izan daitezkeen irudiak, informazioa, garaiko arropa (edo antza duen zerbait).</p>	<p>Denboralizazioa: 5 ordu</p>

JARDUEREN GARAPEN PRAKTIKOA

1. ARIKETA: AURREZAGUTZAK

- a) Bete ezazu ondorengo aurre ezagutza fitxa. Horretarako, lehendabizi lau laguneko taldeetan jarri eta bururatzen zaizuen idatzi beharko duzue. Ondoren, amankomunean jarri eta denon ideiak entzungo ditugu. Amaitzeko, liburutegira igo eta berriro ere taldeka galderen erantzuna aurkituko ditugu.

Zer dakigu frankismoari buruz?

1. Zer da Frankismoa?
2. Nor zen Franko?
3. Noiz sortu eta noiz amaitu zen frankismoa?
4. Zer da ideologia bat?
5. Zer da Falanjea?
6. Zer esango zenuke dela gobernu autoritario bat?
7. Zer da errepresioa?
8. Zer da oposizioa?
9. Nori deitzen zioten "El Caudillo"?
10. Ze paper jokatzeko zuten emakumeak frankismoan?
11. Nolako esango zenuke zela eskola?
12. Zer da totalitarismoa?



b) Zer esan zenezake argazki hauen inguruan?
Bururatzten zaizuna idatzi.



2. ARIKETA

- a) Irakurri ezazu ondorengo testua eta azpimarratutako hitzen esanahia aurkitu. Testuinguruan ulertzen ez bada, hiztegia edo interneten laguntzaz egin zenezake. Ondoren, erantzun itzazu planteatzen diren galderak. Hitz asko zailak suertatzen badira, irakasleak laguntza eskainiko du ulertu ahal izateko.

FRANKISMOAZ ZERTXOBAIT JAKITEKO...

Frankismoa, Franco jeneralak Gerra Zibila irabazita, ezarri zuen erregimena izan zen. Diktadura totalitarioa zen, hau da, denen gaineko agintea zuen berak, eta ez da egon hainbesteko agintea izan duen beste agintaririk. Pentsaera nazionalkatoliko erradikala hartu zuen, elizaren babesarekin hain zuzen ere eta horrek finkatu zuen haren fundamentalismoa erlijioan. Beste aldetik falangeak zituen gizarte-berrikuntzarako simboloak erabilgarriak izan ziren erregimenari zentzu falangista emateko.



Praktikan, frankismoa desarrollista izan zen. Ideologia antiliberalari jarraituta, frankismoak alderdien sistema baztertu eta bakarra ezarri zuen: Falangea.

Frankismoak ia berrogei urte iraun zuen.. Baina erakunde eta gizarteko babes handiak ez balitu, nekez jasango zituen Francok kanpoko presioak, oposizio politikoa, ikasleen istiluak edo langileen eta lurraldeetako protestak. Falangea, Eliza eta Armada izan zituen frankismoaren oinarriko hiru zutabeak baina beste gizarte taldeak ere lagun izan zituen bere ibilbidean: Lurjabe handiak, industriako enpresariak, finantzetakoak, probintzietako burgesia txikia, ipar eta erdialdeko nekazariak, katolikoak... Baina erregimena hain luzea izateko gehien lagundu ziona espainolei ezarritako kontzientzia politikorik eza eta frustazio kulturala izan zen.



Propaganda eta hezkuntza guztiz kontrolatuta, azken urteetan apur bat bigunago, gerra osteko belaunaldian hartu zituen hezkuntza autoritarioa eta indarrezkoa hartu zuen. Frankismoaren arabera, Estatua eta Eliza banaezinak ziren eta Elizatik hartu zuen, hasieratik, behar zuen babesa. Nazionalkatolizismoaren babesean, eta, ondorioz, Estatua konfesionala izanda, Espainiako Elizak edozein erakundek nahi lukeen guztia izan zuen: diru-egoera ona, gizarte aginte eraginkorra, etsaien kontrol osoa, erlijioa praktikatu eta doktrina zabaltzeko erraztasun guztiak. Irakaskuntza ertainean, leku asko eta era askotakoak zituenez, zabal jokatu ahal izan zuen eta gizartean eragin handia hartu zuen.



b) Esan itzazu ze esanahi duten azpimarraturiko hitzek: (<http://www1.euskadi.net/harluxet/>) erabil zenezake.

- Erregimena:
- Nazionalkatoliko:
- Fundamentalismoa:
- Nazionalsindikalismoa:
- Desarrollismoa:
- Antiliberala:
- Frustrazio kulturala:
- Estatu konfesionala:

c) **Erantzun itzazu ondorengo galderak:**

ERANTZUN GALDERAK:

- Nola ezarri zuen Francok Erregimena?
- Zertarako ziren erabilgarri sinboloak?
- Alderdien sistema baztertu ostean, ze sistema ezarri zuen?
- Zenbat denbora iraun zuen frankismoak?
- Zein zituen oinarrizko hiru zutabeak?
- Zertarako balio izan zion frustrazio kulturalak?
- Nondik hartu zuen babes morala?

3. ARIKETA

- a) Aitona amonei Frankismo garaian eskolan izandako bizipenak galdetu eta idatzi beharko dituzue. Ondoren, emango diren argazkiekin eta aurkituko duzuen dokumentazioarekin konparatuz, gainontzeko ikasleei aurkeztu beharko dizkiezue . Lan hau, 4 laguneko taldeetan burutu beharko da.

Ondorengo dokumentazioa emango zaie: (emaniko dokumentazioa ez da oso zabala izango. Datu batzuk emango zaizkie baina eurak izango dira lotura lana egin behar dutenak datu horien, eurak aurkitutakoen eta aitona amonek kontatutakoaren artean).

- IRUDIAK





- DOKUMENTAZIOA:

Eskola katolikoak

- Klasea hasi baino lehen umeeek otoitz egiten zuten, baita atera baino lehen eta baita jan baino lehen.



Frankismoa eta eskola

- Eskolara sartu bezain laster umeeek abesti falangistak abestu behar zituzten, eskoletako hormetan F. Francoren argazki bat egon behar zen derrigorrez, baina orain askoz pentsamentu libre dago eskolan.



Eskolako materialak



- 60-70 hamarkadetatik aurrera ezinbestekoa zen horman esekita irakurketa taula bat egotea, baina gaur egun ez da beharrezkoa, ikasle bakoitzak bere liburua duelako.
- Idazteko makinak eta proiektoreak oso urriak ziren eskolan, horregatik arkatzez idazten zuten, orain ordea, gero eta ordenagailu, proiektore etab daude.

Ikasgaiak



- Natur zientziak, gizarte, matematika eta gazteleta ziren ikasgaietako batzuk, baina orain ez bezala neskenzako, bizitzako ikaskuntza zegoen.
- Irakasle bakoitzak bere taldean ikasgai guztiak irakasten zituzten, baina gaur egun irakasle bakoitzak bi edo hiru ikasgai irakasten ditu.

Ordutegiak

Gutxi gora behera
9:00 sartzen ziren
eskolara eta 12:30etan
ateratzen ziren
jateko. 4:30etan
ateratzen ziren
eskolatik.



Eskola eta gurasoen arteko erlazioak

- Umeak txarto portatzen baziren zigortu egiten zituzten modu ezberdinez eta gurasoei oharrak bidaltzen zizkieten gehienetan. Irakasleek ez zuten gurasoekin hitz egiten. Gaur egun irakasleek gurasoekin bilerak egiten dituzte.

- INFORMAZIO GEHIAGO:

<http://www.youtube.com/watch?v=O4rfZM7bmfA>

AITON –AMONEI EGIN BEHARREKO GALDETEGIA:

Memoria eta historiaren arteko harremana eta erabilpena Lehen Hezkuntzako ikasgelan: analisi teorikoa eta proposamen didaktikoa.



Nire datuak

Izena.....

Ikastaldea.....

Lanketari buruzko iritzia:

Zer da gehien gustatu zaizuna?

Zer ikasi duzu?

Zer da gutxien gustatu zaizuna?

Balorazio orokorra

elchela

Galdetegi honekin, gure arbasoek Francoren garaiko bizitzari buruz esaten dutena berreskuratu eta klasera ekarri nahi dugu. Eskola garaia buruz galdesorta hau eginuz, aurreko mendeko bizitza hobeto ulertzeko alegina egin nahi da. Gurasoak edo aiton-amonon hitzetatik abiatu eskola frankista ezagutu ahal izateko.

ARBASOEI ELKARRIZKETA

- 1 Izen deiturak.
- 2 Nongoa zara? (herria, auzoa, baserria)
- 3 Noiz jaio zinen?
- 4 Nolakoa izan zen zure eskola? (Publikoa, pribatua, herriarena)
- 5 Eskola mixtoa ala segregatua zen?
- 6 Noiz hasi zinen eskolara joaten?
- 7 Zuretzako ze lanbide nahi zenuen?
- 8 Noiz arte egon zinen eskolan?
- 9 Astero zenbat egunetan joaten zinen eskolara?
- 9 Euskaraz eskolarik hartu zenituen?
- 10 Irakasleak gogoratzen dituzu? Nongoak ziren?
- 12 Irakasle bakar bat, ala, gehiago izan zenituen?
- 13 Klase hasieran abestirik edo otoitzik kantatzen zenituzten?
- 14 Eskola liburuak gogoratzen dituzu?
- 15 Ze ikasgai irakasten zen eta zein zenuen gogokoena?
- 16 Zer nolako zigorrak erabiltzen ziren? Inoiz zigortua izan zinen? Zergatik?
- 17 Nolakoa zen ikasgela? Nola zegoen dekoratua? eta eskola, nolakoa zen?
- 18 Jolas orduetan zer egiten zenuten? Zein zen jolasik gustokoena?
- 19 Zeintzuk dira eskolari buruz dutzun oroitzapen onenak?
- 20 Zeintzuk dira eskolari buruz dituzun oroitzapen txarrenak?

4. ARIKETA

Ondorengo bideoa ikusi eta emango diren puntuei jarraituz iritzi testu pertsonal bat idatzi beharko da. Testu honek, 2 orrialde izango ditu gutxienez.

<http://www.youtube.com/watch?v=XLbb-3smw18&feature=related>



- Hona hemen garai hartako arau batzuk:
 - Gurutze santua jartzeak, kurtsoaren hasiera datorrela esan nahi du.
 - Francoren irudiaz gain, Ama Birjinaren irudia ere egon beharko du gelan, denak ikusteko moduko lekuan noski.
 - Eskolara sartzean, hurrek, “Ave Maria Purisima” esan beharko dute eta irakasleak “ sin pecado concedido” erantzungo die.
 - Espainiako bandera klase aurretik jarri eta ondoren kentzea, ereserkia abesten den bitartean egin beharko da, eta nahitaezkoa da estatu mailan egitea.
 - Igandeetan haurrak elizara joan beharko dute irakaslearekin.
 - Klase aurretik “Cara al sol” abestia kantatu.
 - ...

Memoria eta historiaren arteko harremana eta erabilpena Lehen Hezkuntzako ikasgelan: analisi teorikoa eta proposamen didaktikoa.

- Ikusitakoa eta irakurritakoa kontuan izanik, eta ondorengo puntuak jarraituz, osatu ezazu zure testua.

Jarraitu beharreko puntuak:

- Zer egingo genuke garai hartan?
- Gaur egungo eskolarekin konparaketa egin.
- Euren larruan jarriz gero zer?
- Posible litzateke gaur egun horrelako eskola bat?
- Eskola eredu on bat zela esango zenuke?
- Eskola hartako zerbait erabiliko zenuke gaur egun?
- Irakasleei buruz zer esan dezakezu?
- Beldurrez biziko ziren haurrak?
- Ondo ikasten zutela uste duzu?
- Gaur egungo eskolan ikusten diren haurren jarrerak posible izango lirateke garai hartan?
- ...

5. ARIKETA

Frankismoaren eta eskolaren gainean ikasitako guztia praktikan jarriz, haurrek Frankismo garaiko egun bat antzeztu beharko dute. Pentsa dezagun egun horretan Franko dela herrira etortzeko. Herritar bakoitzak ze paper izango lukeen jakin behar dugu eta horretarako beharrezko den informazioa bilduko dute haurrek.

Antzezlanara prestatzeko, taldeka banatu eta talde bakoitzak herriko talde ezberdin baten papera landu beharko du: Eliza eta elizgizonak, eskola eta ikasleak, oposizioko jendea, herritar xumeak... Bakoitzaren janzkerari buruzko informazioa lortu eta ahalik eta jantzi antzekoena prestatu beharko dira.

Antzerki bitartez, Franko herrira datorren eguna irudikatu beharko dugu beraz, herritar eta talde ezberdinak izango luketen kokalekua eta jarrera ikusi behar dugularik bertan.

- Lagungarriak izan daitezkeen irudi batzuk:



4.6. Ebaluazioa

Ebaluazioari dagokionez, gure proiektuan ez da egongo amaierako azterketarik, proiektu osoak izango baitu garrantzia. Ez dugu uste, amaierako azterketa baten bitartez ikasleak gai direnik haien ezagutza eraiki eta eraikitakoa transmititzeko, ez da operatiboa.

Honen aurrean ikasleentzako motibagarria izango den metodologia bat aurkeztu dugu, eta prozesu osoan zehar izango dira ebaluatuak, kontuan hartuz jarduera batzuk helburu zehatz batzuk lortzera bideratuak egongo direla, eta beste batzuk aldiz, beste batzuetara.

Haien jarrerari dagokionez, garrantzitsua izango da prozesu osoan zehar, haiek ikertzeko jarrera aktiboa erakutsi behar izango dutelako. Gainera, askotan haien ikaskideekin lan egingo dute, eta lankidetzarako aproposak diren jarrerak adierazi behar izango dituzte.

Bestetik, edukiei dagokienez, bai elkarrizketak egiterako garaian eta baita iritzi-artikulua idaztean izango da garrantzitsua haiek jaso duten ezagutza praktikan jartzeko eta barneratzeko, beraz, jarduera mota hauei emango zaie garrantzia ikasleek benetan edukiak barneratu dituzten ala ez frogatzeko.

Memoria eta historiaren arteko harremana eta erabilpena Lehen Hezkuntzako ikasgelan: analisi teorikoa eta proposamen didaktikoa.

4.7. Denbormalizazioa

Jarduera bakoitzean gutxi gorabeherako denbormalizaio bat aurkezten da, ikasleen inplikazio mailak eragina izan dezakeelako, ariketak garatzearen moduan eta denboran, eta ariketa bakoitzetik jasotzen ditugun emaitzetan.

Hala ere, kontuan harturik tutorea dela Natura, Gizarte eta Kultur ingurunearen ezagutza lantzearen arduraduna, honek ordu gehiago edo orduak molda ditzake proiektuari errentagarritasun handiena bilatze aldera.

Proiektu honek lau edo bost asteko iraupena izango du, lehen esan bezala, kontuan harturik ikasleek eskolaz kanpo ere lan egin behar izango dutela, eta honek eragina izan dezakeela proiektuaren garapenean, haien inplikazio maila kontuan hartuta.

Hona hemen proiektuaren kronograma:

ASTEA	KLASEAK	JARDUERAK
1	1 eta 2	1.Ariketa
	3,4, eta 5	2.Ariketa
2	3.Ariketa Elkarrizketak prestatu, eskolaz kanpo elkarrizketak egin eta bitartean eskola orduetan irakaslearen laguntza jaso.	
3	6	3.Ariketaren azken atala
	7, 8 eta 9	4.Ariketa
4	10, 11 eta 12	5. Ariketa

5. ONDORIOAK

Proiektua zehazterako orduan, Memoria Historikoaren gaia aukeratu genuen honek Historian eta Historiaren Didaktikan izan zezakeen eragina kontuan hartuta. Nahiz eta Espainian zentratu, aproposa iruditzen zitzaigun gai honen lanketa, kontuan hartuz edozein herrialderen historiaren gertuko parte garrantzitsu bat eskaintzen digula.

Lanketa eta hausnarketa bibliografikoa egin nahi izan dugu alde batetik eta bestetik, honetan oinarritutako unitate didaktikoa sortu dugu.

Behin bibliografia aztertzen hasita, konprobatu ahal izan genuen, Memoria Historikoaren gaiak historialarien artean jakin-min handia sortzen ari dela eta Historiaren eraikuntzan askok bat egiten dutela Memoriaren garrantzia azpimarratzerakoan. Gainera, historiaren didaktikak izan duen garapena eta bai psikologiak eta baita pedagogiak alor honetan duten eragina kontuan hartuta, ondorioztatu ahal izan dugu, Memoria Historikoaren bidez lantzen den metodologiak aukera paregabea eskaintzen digula, gaur egun defendatzen den ezagutza eraikitzearen kontzeptuarekin. Metodo tradizionaletatik aldentzea ahalbidetzen digu, eta neurri handi batean, ikasleei autonomiaz, aktiboki eta kritikoki ikasteko aukera eta ezagutza eraikitzeko aukera ematen die, etorkizunean izango duten munduari aurre egin ahal izateko eta bakean oinarritutako gizarte demokratiko bateko kide izateko.

Metodologiaz gain, Memoria Historikoaren gaia lantzeak ere ikasleei gizarteak bizi duen gaur egungo egoera ulertzen lagunduko die, beste garaitako historiak eraikitzeko ere balio duen arren, gurean, historia garaikidea lantzeko aproposa ikusten baitugu. Horrela, iraganean gertatu diren akatsez ikasi ahal izango dute, etorkizuneko gizarte baten parte izango diren kideak izanik, baloreetan oinarritutako izaera bat garatu dezaten.

Azkenik, aipatu, bibliografiari esker jaso ditugun ekarpen guztiak bilduta, proposamen didaktiko bat sortu nahi izan dugula. Honela, ikasgelan, eta hirugarren zikloko ikasleekin zehatzago, historikoki pentsatzearen metodologia Frankismoaren garaia lantzeko erabili nahi izan dugu, ikasleek iturri historikoak landu ahal izateko eta historia eraikitzeko ariketa segida bat planteatuz. Hala Memoria eta historiaren arteko harremana eta erabilpena Lehen Hezkuntzako ikasgelan: analisi teorikoa eta proposamen didaktikoa.

ere, esan beharra dago, frogatzeko geratzen den proposamen bat dela, ez baitugu aukerarik izan hura ikasgelara eramateko.

BIBLIOGRAFIA GENERAL

AGULAR, P. ; (1996). *Memoria y olvido de la Guerra Civil española*. Madrid: Alianza.

BENAJAM, P., PAGÉS, J. (2008.): Enseñar y aprender ciencias sociales, geografía e historia en la educación secundaria. Barcelona. ICE/HORSORI.

BERGSON, H. ; (1946). *Matière et Mémoire. Essai sur la relation du corps à l'esprit*. Paris: Presses Universitaires de France

BLOCH, M. ; (1925). Mémoire collective, tradition et coutume. *À propos d'un livre récent. Revue de Synthèse Historique*.

EGAN, K. (1998): *Fantasía e imaginación: su poder en la enseñanza*. MEC. Madrid.

FRANK, R. ; (1992). La mémoire et l'histoire. En Wolman, D. (dir). *La bouche de la vérité? La recherche historique et les sources orales n° monográfico de Cahiers de l'IHTP, 21, novembre, 65-74*.

FERNÁNDEZ, L. ; Nomes e Voces (eds.) (2012). *Memoria de guerra y cultura de paz en el siglo XX. De España a América, debates para una historiografía*. Gijón: Ediciones Tres, S.L.

GONZÁLEZ, E. ; (2013). *Memoria e Historia*. Madrid: Los libros de la catarata

HALBWACHS, M. ; (1994). *Los marcos sociales de la memoria*. Barcelona: Anthropos.

LAVABRE, M. C. ; (2001). La mémoire fragmentée. *Peut-on agir sur la mémoire?*, en Leonard, Y. (dir), *La Mémoire entre Histoire et Politique, Cahiers Français, 303, julio-agosto, 8-13*.

NERONE, J. ; (1989). Professional History and Social Memory. *Communicatio, 11, 2. 89-104*.

NORA, P. ; (1978). *Mémoire collective. La nouvelle histoire. Les encyclopédies du savoir moderne*. Ed. Catellana en Bilbao: Mensajero.

Memoria eta historiaren arteko harremana eta erabilpena Lehen Hezkuntzako ikasgelan: analisi teorikoa eta proposamen didaktikoa.

Prats, J. ; Prieto-Puga, R. ; Santacana, J. ; Souto, X. ; A.Trepát, C. (2011). *Didáctica de la Geografía y la Historia*. Barcelona: Editorial GRAÓ, de IRIF, S.L.

RICCEUR, P. ; (2000). *La memoria, la historia, el olvido*. México: Fondo de Cultura Económica.

TREPAT, C.: *Procedimientos en historia. Un punto de vista didáctico*. GRAO. Barcelona. 1995.

TREPAT, C., COMES, P. (1998): *El tiempo y el espacio en la didáctica de las ciencias sociales*. Barcelona, GRAO.

Tribó, G. ; (2005). *Enseñar a pensar históricamente*. Barcelona: Horsori Editorial.

TORRES BRAVO, P.A. (2001): *Enseñanza del tiempo histórico. Historia, Kairós y Cronos. Una unidad didáctica para el aula de ESO*. Madrid. Ed. de la Torre.

BIBLIOGRAFÍA ESPECÍFICA SOBRE EL FRANQUISMO.

BARCIELA, C.. LÓPEZ, M.^a J.. MELGAREJO, J.. MIRANDA, J. A. (1999): *La España de Franco (1939-1975). Economía*. Madrid.Sintesis.

GRACIA, J., RUIZ CARNICER, M.A., (2001): *La España de Franco (1939-1975). Cultura y vida cotidiana*. Madrid.Sintesis.

MORADIELLOS, E. (2000): *La España de Franco (1939-1975). Política y sociedad*. Madrid.Sintesis.

LANA BERASAIN, J.M. (Coord.) (2002) : *En torno a la Navarra del siglo XX. Veintiún reflexiones acerca de Sociedad, Economía e Historia*. Pamplona, Colección Historia, UPNA-NUP.